

Gasteizko 871 ikaslek landu dute bertsolaritza eskola ordutan

Iñaki Viñaspre, Uxue Diaz de Cerio eta Oihane Perea aritu dira kurtso honetan zehar GU ERE BERTSOTAN programa lantzen bosgarren eta sei-garren mailatan, bederatzi ikastetxetan. Bertsoak ezagutzeko, egiteko, moldatzeko... aukera izateaz gain, aitzakia ederra izan da hizkuntzarekin jolasteko. Oso balorazio positiboak jaso ditugu ikasle, guraso zein irakasleengandik.

Azken urteetan beste elkarte eta euskara eragile askok ere euren babesa adierazi diote gure proiektuari.

GU ERE BERTSOLARI programa "Bertsolaritzaren Curriculuma" lanean oinarritzen da eta lau eremu lantzen ditu: **MUSIKA, KULTURA, HIZKUNTZA** eta **TREBETASUN PERTSONAL ETA SOZIALAK**.



Gasteizko bertso-eskola

GASTEIZ

Gasteizko bertso eskola (Amaia zentroan)

-Gazteak: Asteazkenetan (18:30-20:00)

Bertsoaren saltsan (Iparralden)

-Helduak: Astelehenetan (19:00-20:30)

Irakaslea: Felipe Zelaieta

Bertxilika (Armentia Ikastolan)

Haurrak: Astelehen, asteartean eta ostegun (14:00-15:00)

Irakasleak: Paula Amilburu, Maria Izaga, Iker Pastor, Oier Arbina eta Uxue Diaz de Cerio

Abetxuko (Abetxuko Ikastolan)

-Haurrak: Ostiraletan (16:30-17:30)

Zatoz bertso-eskolara!



Ez galdu aukera. Maila eta adin ezberdinetako taldeak dituzu zure zain.

Jolastu euskararekin eta euskaraz!!

Gasteiz saioz saio

BERTSO SAIOAK GASTEIZEN (lagin txiki bat)

- 2013/09/21: BERTSO PILOTA, Zaramagan
A.Otamendi eta Jagoba Apaolaza
- 2013/10/17: BERTSOLHARITZA, Ariznabarran
- 2013/11/25: PLAZA LIBREA, Iparralden U. Alberdi
eta O. Perea
- 2013/12/11: MENDE BATEN ALDARRIAK, Ibaion-
don J. Maia eta X Amuriza
- 2014/02/19: BERTSOKATU txapelketa, Alde za-
harrean R. Santxez, J.Eizagirre, I.Majuelo eta M.Izaga
- 2014/03/25 BI BALA ikuskizuna, Alde zaharrean
I.Gurrutxaga eta A. Barandiaran
- 2014/06/03: PLAZA LIBREA, Pilarren H. Casabal
eta F.Zelaieta



KUADRILLARTEKOA

Kuadrillartekoa berritu eta berritzaile iritsi zen aurtengoan gurera. Hasteko, lehiarik gabe egin dugu, elkartzea badelako nahikoa aitzakia. Bestetik, norekin, non, zenbat saio... taldeen esku zegoelako.

Parte hartze handia izan du eta dugu, Gasteizko bost talde (Bapateroak, Aizkorak zorrotzu, Errexala, Bertxotxoak eta Zabala eta estuak) aritu baitira bat bateko saioetan eta idatziz beste bost (Wikingoak, Lehiotik at, Oh Shibaró bertso team, Bertsoaren saltsan eta Udarregitarrak C.P. (Corporation)). Bost saio egon dira guztira gure hirian berrina.



Kuadrillartekoaren azken festa egunean ere, presente izan ziren talde hauek. Giro ederrean aritu ziren bertaratuak, poteoan, dantzan, bertsotan.... Agurain bertsoz, koadrila arteko giroz, musikaz, dantzaz... bete genuen. Eta guzti hori lehiatu gabe.

Aho zapore izugarri ona utzi digu aurtengoak,

ea laster datorren hurrengoak!!



EskolartekoA 2014



Maiatzaren 9an ospatu genuen Arabako eskolarteko txapelketako Gasteizko kanporaketa. Armentia ikastolako aretoa izan zen hautatutako lekua. Bertso eskola ezberdinek bertso sortak abestu ostean, Unai Anda, Ane Amor, Maddalen Arrausi eta Unai Argote igo ziren oholtzara. Saio txukuna eta arina egin zuten lau bertsolariek. Lanak amaitutakoan, epaileek Maddalen Arrausiri eta Unai Argoteri eman zizkien finalerako jokoan zeuden bi txartelak.

Maiatzaren 31n ospatu genuen Eskolarteko finala. Azken urteetan ohi bezala, Legutioko Kultur etxeko aretoa eta frontoia izan ziren hautatutako tokia.

Bertso sortek ireki zuten goizeko Legutioko kultur etxean hasi zen bertso festa. Aramaioko bertso-eskolako txikiak izan ziren lehenak oholtzara igotzen eta ederki piztu zuten giroa umorez betetako bertso-sorta antologiko baten bidez. Horien ondotik Aguraingo bertso-eskolako haurrek Eskorbutoren doinuak oholtzara igo zituzten entzule guztiak kantuz jartzea lortu zutelarik. Azken bertso-sorta Murgiako bertso-eskolako gazteena izan zen, eta bertsolari eta perkusiolari bikainak direla erakutsiz ondoren bat-batean aritu behar zuten 6 gazteak zirikatzeak aukera ez zuten alperrik galdu.

Irribarrea ahoan oholtzaratu ziren beraz Maria Fuentes, Markel Yoller, Egoitz Iradier, Peru Abarrategi, Maddalen Arrausi eta Unai Argote. Irribarrez baina bertsoaren euren onena emateko prest. Zortziko nagusian zein txikian saio arinak eta umore ukitu ederrekin eskaini zizkiguten. 60 entzulearen aurrean, saio orekatua eta bizia osatu zuten ofizioki. Ondoren bakarkakoen txanda iritsi zen, puntuari erantzun eta gaiari bi bertso bota beharra. Hasiera batean lan nekeza iruditu arren, entzulek gogoz txalotu zuten sei bertsolarien ahalegina eta ale ederak entzuteko parada izan zuten bertaratutako guztiak. Saioa bukatzean jakin genuen Peru Abarrategik (txapeldun) eta Maddalen Arrausik (ordezkatuko gaituztela EHko eskolartekoan



Bat-bateko saioa amaituta eguraldi eskasari irribarre eginez, kalejiran abiatu ziren haur, gazte eta gurasoak kalean barna. Alboka, pandero eta puntuatu gabeko bertsoek hartu zuten kalea. eta 15:00etan Kiroldegiaren aterpean herri bazkari goxoa izan zuten eskerroneko sari. Bazkalostean herri olinpiadak burutu zituzten, tentsioak alde batera utzita, bertso-eskola guztiak nahastuta, egunari amaiera bikaina emanaz.

GORA ZUEK!

Zatoz Arabako bertsolariak animatzera Euskal Herriko Eskolarteko txapelketara!!

Orion Ekainaren 21an izango da

Uda ere bertso artean

Uda gainean ugu. Lasaitasuna, patxada, fetak, jaia, jolasak.... Baina, guzti hoietan, ziur bertsoa gertu izango dugula. Uda baino garai hoberik ez baitago presarik gabe gure zaletasunari arreta jarzeko.

Arreta jarri!

Ez galdu aukerarik!



GASTEIZKO JAIAK 13:30etan Matxeten

Abuztuak 5. Amets Arzallus, Andoni Egaña
Gai-jartzaile: Josu Goikoetxea

Abuztuak 6. Irati Anda, Odei Barroso, Jagoba Apaolaza eta Jon Maia. Gai-jartzaile: Olatz Santocildes

Abuztuak 7. Oihane Perea, Etxahun Lekue, Ander Solozabal eta Unai Iturriaga. Gai-jartzaile: Maialen Kortabarria

Abuztuak 8. Felipe Zelaieta, Iratxe Ibarra, Iñaki Viñaspre eta Beñat Gaztelumendi. Gai-jartzaile: Beñat Garaio

Abuztuak 9. Xabi Igoa, Ruben Sanchez, Maialen Lujanbio eta Eneko Fernandez. Gai-jartzaile: Idoia Beitia

ABEren txosna



Hainbat urteetako elkarlanean ondotik, Arabako bertsozale Elkarteak Txosna Batzordearen parte izatea erabaki du bertsozaleei Gasteizko jaietan bertso-gune bat eskaintzeko asmoz.

Gau giroan ere bertsoetatuz gozatzeko aukera izango duzue beraz.

ENTXOSNATU GUREKIN!!

ABEren TXOSNAn, 21:00ean

Abuztuaren 5ean

Bertso kata

Abuztuaren 6an

Bertxoko all stars

Abuztuaren 7an

Saio musikatua

Abuztuaren 8an

Bertso fushion

Abuztuaren 9an

Bertso kinito

Gasteizko bertso-eskola
AMAIA ZENTROA
Benito Perez Galdós z/g 01002 GASTEIZ
Arduraduna: Iñaki Viñaspre
Mug: 688695875
e-posta: gasteizkobertsoeskola@yahoo.es

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA
tel: 945 010505
e-posta: araba@bertsozale.com



www.bertsozale.com/araba
www.bertsoa.com